

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 932

*136/2023 EBAZPENA, urtarrilaren 20koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez izendatzen den Aratxu Lozano Otero andrea Osakidetzako Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea Erakunde Sanitarioko Zuzendari-gerente.*

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Zuzendari-gerentearen lanpostua betetzeko deialdia 2022ko abenduaren 26ko EHAA (245. zk.) argitaratu zen, Zuzendaritza Nagusiaren abenduaren 9ko 1917/2022 Ebazpenaren bidez.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da; lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, eta haien baldintza profesionalak baloratu dira aurkeztutako merezimenduen arabera.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Aratxu Lozano Otero andrea proposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusi honek,

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Aratxu Lozano Otero andrea Osakidetzako Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Zuzendari-gerente izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen horrek 2023ko urtarrilaren 23tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 20a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.